

TOLOSA / Kolonbiako liburutegi bati laguntzeko bilketa

Elkartasuna. Sanjoanetan bigarren eskuko azoka jarri nahi dute biltzen dutenarekin, Samaniegok eta Udal Liburutegiak.

Erredakzioa

Samaniego Ikastetxeak eta Tolosako Udal Liburutegiak bigarren eskuko Liburu, CD, VHS eta DVD bilketa bat antolatu nahi dute Mando Liburuzaina izeneko proiektua aurrera eraman ahal izateko.

San Joan jaietako azokan, hau da ekainaren 21ean, stand bat jarriko dute, bildutako material guztiak salgai jarri, eta bertan lortzen duten dirua Kolonbiako komunitate batean liburutegi zerbitzu berezia jartzeko baliatuko dute. Hain zuzen ere lortu nahi dutena ondorengo da: mando bat, alforjak, kultur-hezitzailearen soldata, liburuak eta ikas-materiala (nekazalguneetan ibiliko den liburutegi mugikorra).

Azokan salgai jartzeko material bilketa

Hau guztia posible egiteko, sanjoanetako azokan salgai jartzeko materiala bildu behar dute, eta horretarako herritarren parte-hartzea eskatu dute. Liburuak, CDak, VHS zintak bildu nahi dituzte, besteak beste. Ekainaren 20ra arte izango da materiala uzteko aukera, eta Tolosako Haur Liburutegian nahiz Samaniego ikastetxean utzi ahalko dira. Haur Liburutegian (943697461, slarre@tolosakoudala.net) astelehenetik ostiralera 17:00etatik 20:00etara izango da materiala uzteko ordutegia. Samaniego ikastetxean (943651063, 012244aa@hezkuntza.net), berriz, 09:00etatik 14:30era utzi ahalko da materiala; kasu honetan, eraikin zaharreko liburutegian, zuzendaritza ondoan utzi beharko dira.